



**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

583. zkia.  
XIV. urtea  
2006ko irailaren 8a



Gizonak animaliaaren kontra San Antolinen

# 9 gizon behorra baino indartsuago



**Eskerrik asko hilaren 4an estudioaren irekierara etorri zineten guztioi**

**Pedro Muguruza Etorbidea 5 Tel./Fax. 943 743245 disart@disartestudio.net**



**%20ko beherapenak**

**Gaiak**

Gaiak: 100% moldagarria. Sakonera ezberdinetakoa eta 3 dimentsiotako profila bereziki erabiltzen da.

**14 puntuko sistema** ezklusiboa, gure gorpuzkera 3 aldi erenkorrekin berregintzen du: sorbaldan, nekuran eta hanketan.

**Zeta** ohialtz eginda, itxeratu forma da. 1 gutxi trinkoa eta arina izan arren berotasuna mantentzen du haur egiten duenean eta freskotasuna berro egiten duenean. Zeta "hipoalergenikoa" da, akaroak saltesten ditu eta berotasuna ere gutxitzen du. Gaiak era naturalan gertatzen da.

**PROFITUA**

- Haina: Zeta-ohial
- Buzingaria: "Ureztatua"

**sejapur**

- Haina: Zeta-ohial
- Buzingaria: 7 trinkoa

Sejapur "Mortzeler"-ek atsedenerako produkturik egiteko erabiltzen duen azken belaunaldiako materiala da. Material honen osagaiak hain onak dira ordezkatu dago. Sejapur funtzioak lehengai beretzatzenak eta kutsagarriak, lehengai natural eta ekologikoekin ordezkatzea eta eta horrela ingurumenaren degradazioa saltesten du.

**Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.**

**LAGUNAK**


**24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe**

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



AMAIA GORROTXATEGI



AINHOA MENDIBIL

## ZOZOAK BELEARI...

Bukatu da, bukatu da,  
Bukatu da, se acabó... Ainhoa bukatu dela! Bukatu dira jaiak, kalimotxo betetako motxilak, zezenak... Udaletxe azpiko hesitik salto egiteko urte luze luze bat itxaron beharko duzu!!

Pena bat. Benetan.

Askorentzat bukatu dira oporrak, hondartza, lasaitasuna eta beroa. Eta beroa bukatzeaz bat, hotza, bufanda, sudur punta gorriak, orbela lurrean eta txoriak zeruan. Badoaz txoriak.

Afrika aldera doaz, bero bila. Batzuk bi-dean geratuko dira, eta beharbada horietako batzuk zure etxeko sutan egosiko dira, aitarean begirada harroaren pean. Beste batzuk beren helmugara iritsiko dira, eta eguzkiaren beroa sentituko duten arren, euskal herrian hotzetan utzi duten etxeko berotasuna faltan botako dute.

Beraien kabia zaharra ahaztu gabe, kabia berria egingo dute. Euskal Herria existitzen dela ere ez dakiten txoritxo berriak lagun egingo dituzte eta beharbada ahaztu ere egingo zaie udaberrian berriz hona itzuli behar dutela. Baina itzuli egingo dira. Triste seguru asko. Orain ezetz iruditzen bazaie ere.

Belea badoa, baina ostiralero (edo gehienetan), gustora asko itzuliko da etxera.

Zozoa ere badoa. Belea baino urrutixago. Ez bero bila, ez Afrikara. Baina badoa. Berari ere goiko hau gertatuko al zaio?

«Txoriak  
afrika aldera  
doaz  
bero bila»

AMAIA

«Afrikan neguan  
ere, hemen  
udan baino  
bero gehiago»

AINHOA

Bukatu da, bukatu da... bai, bukatu da. Bukatzen ari da, edo bukatu zen batzuentzat. Baina ni neu beste zerbait hasten dela sinestuta nago jada. Joan dira oporrak, hondartza, lasaitasuna, beroa... negua bator, eta txoriak badoaz.

Akaso hotzaren hotzez dardarka izango duzu gorputza; bidaia, lagun berriak, inguru berria... kabi zaharreen jarraitzea errazagoa delako, dudarik gabe.

Baina ederra izango da. Hango parajetan zeinek jakin! Akaso ez da hemengo belar sikurik egongo, ez adar esturik, batek jakin ez duzun larrosa usaintsuekin egin beharko zure kabia! Eta hasieran ez zaizu gustatuko, baina gero bai. Eta hasieran, bertako txoriei ere ez diezu ulertuko euren pio-pio a, baina gero bai. Eta hango ura ez da hemengo bezain ona izango, eta gero ere ez; baina ez du ardurako.

Baina hilabeteak aurrera, berriz ere berotzen hasiko du hemen. Eta gainontzeko txoriekin batera itzuliko zara hemengo bero bila. Baina ez zaitu berotuko nahi beste hemengo eguzkiak. Hasieran behintzat. Afrikan neguan ere, hemen udan baino bero gehiago egiten du eta!

Baina denaren gaintetik, mereziko du hegaldiak; eta hasi hegan beldur gabe Amaia!

P.D. goiko dena gertatuta ere, ez zazu-lan inoren etxean beroaren beroaz, sutan egosita bukatu! Patxo haundi bat!!!



EGITZAZU ERGELKERIAK, BAINA EGITZAZU GOGO BIZIZ



Colete

## Parte hartu, gozatu eta aldarikatu

Beste urte batez bukatu zaizkigu herriko jaiak, eta nola ez, balantzeak egin eta eskerrak emateko ordua ere iritsi zaigu. Madalako Jai Batzordeak aurten ere jai partehartzaileak bultzatzea zuen helburu, beti bezala, jaiak eta aldarikapenak uztartuz. Aurtengoan gainera berrikuntza batzuk ere izan ditugu: Gaztetxe berriari ongietoria eginez gunearen mugak gaintu ditugu, edalontzi berrereabilgarrien erabilera bultzatu dugu ingurumenarekin dugun zorraren aurrean ezin baitugu beste alde batera begiratu eta ezin ditugu ahaztu Gazte Asanbladak antolatutako I. Patata Tortila Lehiaketa eta Ginkana.

Aurten 14. urtea bete du Madalako Gune Askeak eta beste behin ere jende ugari bildu da antolatutako ekitaldietan. Honek datorren urteko 15. urteurrena prestatzeko indarberritu egiten gaitu. Zer hobetu badago eta ziur datorren urtean sorpresa berriak ere izango direla.

Bukatzeko auzotarrei sortzen dizkiegun traba eta arazoengatik barkamenak eskatzearekin batera, eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen. Lehenik eta behin eskerrak zuei, Madalako gunera zein Gaztetxera hurbildu zareten guztiei. Gure eskerrik be-roenak lanean jardun duzuen guztiei: antolaketan, montaketan, turnoak egiten,

bazkarietan... Azkenik eskerrak ekitaldi zein ekimenetan parte hartuz jaiak benetako jai bilakatzen dituzuen guztientzat: edalontzi berrereabilgarriak erabili dituzuenak, dantzaldian izerditu zinetenak, bazkarietan asetu zaretenak, bertsolari zein Elektrotunarekin gora eta behera ibilitakoak, patata tortila lehiaketakoak, ginkaneroak... Biba zuek.

## MADALAKO JAI BATZORDEA

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.




**barren**

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: [barrenpubli@elgoibarkoizarra.com](mailto:barrenpubli@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurubaxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Iendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno **INPRIMATEGIA** Gerfu **TIRADA** 4.545 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855

## TXALOAK

• **Mauxitxa Txarangarentzat txalo handi bat:** "Urtero bezala bikain aritu da Mauxitxa Txaranga aurtengo San Bartolomeetan. Txiki Eguna handi bihurtu zuten berriz ere. Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen aren, kalejiran atera ziren, eta azkenerako eguzkia ere batu zen festara. Oso ondo pasatzen dugu txarangari esker, txalo zaparrada handi bat merezi duzue guztiok. Jarraitu horrela!".



• **San Antolin auzoko Jai Batzordeak bertara hurbildu ziren heritarrek eskertu nahi dituzte:** "Eskerrik asko San Antolin festak ospatzera gerturatu zineten guztioi, diruz lagundu diguzuenoi eta baita festetan lanean aritu zareten guztioi ere. Ea berpizturiko San Antolin jaiak luzaroan irauten duten. Auzotarren lana eta heritarren partehartzea ezinbestekoak izango dira".



## KEXAK

• **Bizilagun batzuk ez dute Deba Ibaia errespetatzen:** "Deba ibaiak Elgoibarren egiten duen ibilbidean ateratako argazkia da hau, uztailearen 27an, goizeko 7:00ak aldean, eta seguru xamar esan dezaket erabat txikituta ageri den telebista hori ez zegoela hori uztailearen 26ko iluntzean, ezta inguruan zeuzkan esne kaxa hutsak ere. Beraz, ez zituen urak ekarri. Gauaren iluntasunak ematen duen anonimatu adoretuak lagunduta, norbaitek etxeko leihotik jaurti zituela esango nuke. Horrenbeste urte Deba ibaiak garbitzeko kontzientzia sortzen eta egun batetik bestera demaseko belarrondokoa eman diogu berriz gure inguruari. Kalea oli-bondoaz, lurrazpiko kontenedorez eta urmael modernoz disfrazatzeaz gain, aurrez dauzkagun gauzei zor zaien garrantzia emateko eskatuko nioke udaletxeari eta ez dezala ahaztu heritar guztion kontzientzia naturista nohizean behin berpiztea".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Sareko Zuzendaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia





## Eskutitza

Harrigarria da gauzak zein gutxi aldatzen diren. 1999. urteko abuztuan egunkarietan azaldutako albiste bat: Belgikara iritsi berri den hegazkin batetako lurreratze trenean 14 eta 15 urte-tako bi mutiko Ghanatarraren gorpuak aurkitu dituzte hilik.

Ez zen aparteko albistea izango, euren arropetan eskutitz bat aurkitu izan ez balute. Komunikabideek eskutitzaren edukina aditzera eman zutenean, Europa osoa hunkitu omen zen. Eskutitza europar agintariei zuzenduta zegoen, Afrikan pairatzen ari ziren egoera ankerra azalduz, batez ere haur eta gazteen elikadura eta heziketa eza salatuz. Errespetu osoz laguntza eskatzen zuten, heriotzaren ziurtasuna eta etsipena gainditzen zuen ingenuitate laino baten pean.

Hotzez eta oxigeno faltaz hil omen ziren bi mutikoak. Beste asko gosez, egarriz eta beroz hiltzen dira pateretan gaur egun. Gauzak hobetu ordez, txarrera doazela dirudi. Urteak pasatu arren, bi mutiko haien eskutitza gogora datorkit gero eta indar handiagoz, kontzientziaren atzeko atea ireki nahiz indarrean dabilen mamua bailitzan.

*Iñigo Otaño*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### ANA SANTOLAYA

GOROSTIZA  
LIBURUDENDAKOA

**Zein albiste irakurriko zenuke gustura biharko egunkarian?**

Emakumeen kontrako erasoak betirako amaitu direla.

**Zein izan da irakurri duzun azken liburua?**

"Los puentes de Londres"

**Pozik hartu al dute umeek kurtsu hasiera?**

Txikienak pozik hasten dira eskolan. Zenbat eta nagusiagoa izan, zailagoa egiten zaie kurtsu hasiera.

**Prentsa arrosako zein aldizkari da herritarren gustukoa?**

"Pronto" aldizkaria.

**Zein da modako jostailua umeen artean?**

Pokemonekin zerikusia daukan edozer gauza, Pokemon modan dago.

**Ikasle garaiko koademoa txukun ala marrazkiz beteta edukitzen zenuen?**

Kurtsu hasieran dotore edukitzen nuen, baina Gabonak alderako zikitzen zitzaidan.

**Zein da dendan daukazuen aldizkari bitxiena?**


Denetarik daukagu; arraroenak bildumak izaten dira.

**Zure egunean zein opari jasotzea gustatuko litzaizuke?**

Nire lehengusinak egindako "arraultza errusiarrak".

## komikia

*Hil da gero...*



*Kokoe 069*

## [ AKORDATZEN NAIZ ]



**MARI TERE IRAEGI**

1932an jaioa

### «Ezkontzak»

**G**uk herrixan bertan ligatzen gendun. Gure kuadrillan neskak eta mutillak giñan. Eurak euren "ligiak" eukitzen zittuen, eta guk guriak. Kartetan egitten gendun gabetan. Oso kuadrilla majua izan giñan. Erromerixetara eta ez giñan asko juten. Eibarrera juten giñan San Juanetan faltarik egin gabe, eta Markiñara Karmenetan. Han pelotarixak eta jende majua biltzen zan. Tia nakan han eta euren etxian igual pasatzen naban egunen bat. Gaztetasan majua euki gendun, ez tristia.

1967-xan ezkondu nitzan, Elgoibarko parrokixan, arratsaldeko 18:00etan, eguen bat zala uste dot. Etzekuak alkartu giñan, lagunak etorri ziran erretratu bat ateratzera, baiña zelebrazio sentzillua egin gendun. Gaur egungo lujorik ez zagan iñundik iñora.

Orduko bodak oso diferentiak ziran. Asko soiñeko belzakik ezkontzen ziran, eta zurixa bazan, motza izaten zan. Gero Pulmanian jun giñan Bilbora, hotelera. "Viaje de novios"era urten gendun hurrengo egunian, Ibizara jun giñan. Bilbotik Madridera abioian. Han egun bat egin gendun eta hu-



rrengo egunian, beste abioi bat hartuta, Ibizara. 24 egun inguru egon giñan. Ibiza oso edarra zan, ez dago gaur egunguakin konparatzerik. Nere senarrak oporrak zaukazen hartzeko.

Agostuan 19-xan ezkondu giñan. 35 urte nakazen nik. Neskazahar eginda nagan ya. Gaur egun 40kin ere ezkontzen da jendia, baiña orduan oso gazte ezkontzen zan. Abioia lehenengo aldiz "viaje de novios"ian probau gendun, eta asko gustau jatan. Ez zidan inpresiorik egin.

## [ GURE BERBAK ]

*Kausazko egitura bat:  
ZELA/NOLA ... -eN*

Opor osteko lehenengo atal honetan, aurreko saillari segittuko diogu. Kausazko esaldixekin ari giñan orduan, eta horri helduko diogu. Galderetatik eratorritako egitturia dakart: *zela/nola ...-en*. Hizkuntza-kontuetan sasoi garbizaliak ziranian, bazartu egitten zittuen gramatikari batzuk, arrotzak ziralakuan, baiña ontzat ematekuak dira gaur egun Euskaltzaindiaren ustez, eta aspalditik erabili dittue eskal heritarrak; normal eta sarri gaiñera.

- *Ba zure ama, bueno, ama ta aitta ere, zela Salontzokuak diran bixak, guk ibilli dogun euskeria iguala dana guk.*

- *Baiña hau zela dan landara haundixa, honek lur gehixo eskatzen jok.*

- *Da hemen polideportibua zela dagan, ba, gaur ume danak dakixe igarixan.*

- *Ostian ez genduan ordaindu ezer ere, baña guk eruten genduan jeneruakin, nola askoz gehixago guk bihar genduan baiña eruten genduan, ba harekin, tabemia irikitta zagan.*

- *Ta beste batek eragitten juan hola. Da jota harekiñ zikin guztia, ariña nola zan, juten zuan, da garixa pisutsua, da garixa garbigarbiga behera jausten zuan.*

- *Bo, gero soltero zela dagan, ba hamentxe bizi dok, basarixan.*

- *Donostia aldetik eta, ebakuaziak izan ziran Altzolara. Da hotelen batzuek rekisatzen zittuen hor, Donostia aldiand da; hamen Altzolan ere bai, nola baiñuetxia-ta oiak-eta ... egokixa zan lekua...*

*Jesus Mari Makazaga*



Tel: 943 74 10 11

**IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ. ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE! IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA**

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

*Zatoz informazio eske!*

## ELGOIBARTARRAK OPORRETAN

# ETA ZU, NON IBILI ZARA?

*Batzuk oraindik oporretan dauden arren, jende gehiena hasi da lanean. Iraileko aldapa gogorra izaten da, eta hori apur bat arintzeko asmoz, oporren errepasoa egingo dugu. Gaurkoan Kuba bizikletan zeharkatu duen bikote bat eta El Salvadorren izan den hirukotea ekarri ditugu gure artera. Bi esperientzia desberdin eta oso interesgarriak. Zuen jarlekutik mugitu gabe, gurekin bidaiatzera gonbidatzen zaituztegu.*

### EL SALVADOR, HISTORIA HANDIKO LURRALDE TXIKIA

Nerea eta Amaia Oñederra eta Mainer Lehr hirukotea El Salvadorrerantz abiatu ziren abuztuaren 2an. Bidaiak ez zuten ondo hasi: "Parisen hegaldia galdu genuen eta han pasatu behar izan genuen lehenengo gaua. Egun bat beranduago iritsi ginen El Salvadorera". Gobernu Kanpoko Erakunde batekin egin dute bidaiak: "Madrilgo Sodepaz erakundearen programa gustatu zitzaigun gehien. Hezkuntza alorrean lan egitea nahi genuen. Gobernu kanpoko erakunde mordo batera idatzi genuen eta azkenean lortu genuen gure gustukoa aurkitzea. Ez zen erraza izan". Hango komunitateetan lanean hasi aurretik, lurraldearen historia, kultura, egoera politikoa eta ohiturak ezagutzeko hainbat jardunaldi izan zituzten bertan: "Historia handiko lurraldea da El Salvador, harrizta gelditu gara. Astebetez erakutsi ziguten dena. Gogorra izan zen, egun osoa pasatzen genuen gauzak ikasten. Informazio gehiegi denbora gutxian, baina oso interesgarria iruditu zitzaigun".

### GERRATEAREN ONDORIOAK

1992. urtean amaitu zen El Salvadorreko gerrate militarra, eta esan digutenez, oraindik haren ondorioak nabari dira: "familia guztiak apurtuta daude gerratearen ondorioz, eta izugarriko pobrezia dago. 11 urte inguru iraun zituen gerrateak, eta diotenez, egoerak hobera egin du". Hirukote honek kontatu digunez, El Salvadorreko bizilagunen helburua Estatu Batuetara joan eta beraien senideei dirua bidaltzea da: "ez diote ikasketei garrantzirik ematen, ikasteko oso baliabide gutxi di-



*Ezkerrean, Mainer, Nerea eta Amaia.*

tuzte. Ahal duten bezain pronto Estatu Batuetara joaten dira lanera etxekoei dirua bidaltzeko. Dirua jasotzen duten momentuan zentro komertzialetan gastatzen dute. Ikaragarriko zentro komertzialak daude".

### TEKNOLOGIA ETA ERLIJOA OSO GARRANTZITSUAK

Baliabide oso gutxiarekin bizi dira, baina oso umoretsuak direla kontatu digute. Teknologia berriek daukaten garrantziak atentzioa eman die: "harrigarria da, umeak kalean oinutsik ibiltzen dira, baina sakeleko telefonoa denek daukate, eta diru apur bat jasotzen dutenean DVD edo musika kateak erosten dituzte". Bestalde, erlijioari ere sekulako garrantzia ematen diotela esan digute: "gertatzen zaien guztia Jainkoak nahi izan duelako da, bai ona eta baita txarra ere. Erlijioa oso garrantziz-

sua da beraiantzat, meza entzutera ere eramán gintuzten! Apaizek indar handia daukate, asko laguntzen diete".

### TURISMO APUR BAT

Oporrak lanean pasatu arren, turismo apur bat egiteko aukera ere izan dute. El Salvador lurralde txikia da, eta gehiena ikusteko aukera izan dute: "Izugarri gustatu zaigu, oso berdea da dena, oso polita. Klima erabat tropikala daukate, egunez bero eta gabez euria. Hezetasun handia dago eta sekulako beroa egiten du. Egun guztia izerditan pasatzen genuen". Bestalde, oso zikina dela gaineratu dute: "zabor guztia lurrera botatzen dute, etxeak eta komunak ere oso zikinak daude". Oso nekaturta itzuli direla esan digute, baina errepikatze moduko esperientzia bikaina izan omen da.



## KUBA

### 1.200 KILOMETRO BIZIKLETAN



Julene Alberdi eta Ibon Arregik hila-bete egin dute bizikleta gainean. Batzuk oporrek deskantsatzeko hartzen dituzte, baina bikote honek turismoa egitea du gustuko. Kuban izan dira eta esan digutenez, irla guztia ikusteko modu bikaina izan da bizikleta. 1.200 kilometro baino gehiago egin dituzte, egunean batez beste 75 kilometro. Beraien egun bat nolakoa izaten zen kontatu digute: "goizeko 5:30ak aldera jaikitzen ginen, ondo gosalduta, bizikletak prestatu eta martxan jartzen ginen. 11:30ak 12:00ak alderako amaitzen genituen etapak, eguerdiko beroa jasanezina zen. Kuba lava zela esaten ziguten, baina aldapa ederrak topatu ditugu!". Hasiera batean Patagonia aldera joateko asmoa zeukaten, baina hemengo negua pasatu ondoren, epelera joateko erabakia hartu zuten.


### JENDE POBREA JATORRENA

Irla guztia ikusi dute eta denetarik topatu dute bertan: "herri pobreetan aurkitu dugu jende jatorrena. Beraiek daukaten apurra ematen dizute eta beti laguntzeko prest daude. Etapa batean zazpi aldiz zulatu genituen gurpilak. Azkenerako ez geneukan konpontzeko materialik ere eta bidean geundela, hondartzara zihoan familia bat pasatu zen traktorean. Berehala hasi ziren denak jaisten guri lekua lagatzeko. Bere bidea jarraitzeko eskatu genien, eta gizona, berriz etorri zen gure bila". Herrialde turistikoetan ordea, jendea desberdina da: "bizikleta gaineko dolarrak bihurtzen ginen, eta nola edo hala, dirua lortzen saiatzen ziren". Ingurune turistikoek ez zituzten bisitatu nahi, baina azkenean Baraderora joan ziren: "denek esaten ziguten Kubako hondart-

zarik onena zela, baina hura oso faltsua da. Kuban beste errealitate bat dago eta Baraderora bakarrik joanda ez da ezagutzen".

Bertako familietan egiten zuten lo Julene eta Ibonen. Honela, bertako bizi-modua askoz gertuagotik ezagutzeko aukera izan dute. Politikaz etxean bakarrik hitz egiten zutela kontatu digute: "oso Fidelistak dira, sistemaren kontra egon arren, Fidel Castoren alde daude gehienak. Fidel hiltzen denean zer gertatuko ote den kezkatuta bizi dira".

Bizikleta gainean pasa duten lehenengo oporraldia izan da, eta esperientzia bikaina izan dela kontatu digute: "jendea harritu egiten zen turistak bizikleta gainean ikustean, ez zuten ulertzen dirua edukita zergatik bidaiatzen genuen bizikletan. Han bizikleta motora erosteko dirurik ez dutenek bakarrik erabiltzen dute".



Julene eta Ibon Habanako malekoian.



## [ PROTAGONISTA ]



Jon **Lizarralde**  
eta  
Abel **Iriondo**

Haritz Euskal Dantza Taldeko bi dantzari handi ditugu Jon Lizarralde eta Abel Iriondo. 18 urte daramatzate elkarrekin San Bartolome Eguneke soka dantzan parte hartzen, bata sokaren aurrean eta bestea atzeko aldean. Aurtengoan, Elgoibarko Udalak omenaldi txiki bat egin die. Soka dantza hasi aurretik, Marivi Agirregomezkorta alkateak eta Igor Palomino Kultura zinegotziak oroigarri bana eman zien. Jon eta Abelek esan dutenez, ahal duten bitartean dantzan jarraituko dute.

## [ NOTIZIA ]

### 196 etxebizitza eraikiko dira Urruzunoko ingurunean

**U**rruzuno 2 eta 3 proiektuen barnean, 196 etxebizitza berri eraikiko dira Elgoibarren. Horietatik 124 merkatu libreko etxebizitzak izango dira eta gainontzeko 72ak alokairuan eskainiko diren Babes Ofizialekoak. Honekin batera, Andone Etxearen ondoan 12.000m<sup>2</sup>ko parkea eraikiko da.

#### Bost eraikuntza

Bost bloketan banatuko dira 196 etxebizitza hauek. Inñiguez de Karkizanoko etxetatik gertuen eraikiko den blokeak zazpi pisu izango ditu eta bertan eraikiko dira Babes Ofizialeko 72 etxebizitzak. Ondorengo lau blokeetan merkatu libreko etxebizitzak eraikiko dira. Lehenengo blokeak 5 pisu izango ditu eta gainontzeko hiru



blokeak 6 pisukoak izango dira. Etxebizitzaren tamainuari dagokionez, 95m<sup>2</sup> ingurukoak izango dira.

Bestalde, Pedro Muguruza Etorbidea eta Urruzuno gerturatzeko lurrazpiko pasabide bat egingo da.

## [ ZENBAKIA ]

# 7.146

Miski Elkarteak 7.146 euro lortu ditu aurtengo kanpainaren lehen zatian. Errifen salmentarekin 4.871 euro bildu dituzte, eta hiru familia eta Udalaren laguntzaz 2.275 euro. Errifen zozketa egin da eta kaleko hormetan ikus daitezke zenbaki sarrituak. Miskik herritar guztiak eskertu nahi ditu.

## [ ARGAZKIA ]



Badirudi Kontxako Bandera polemikari ihes egin ezinik dabilela azken urteotan, eta aurtengoan ere, ez zaio emoziorik faltako datorren domekan jokatu den finalari. Estropadak ez dira futbola modukoak, baina gero eta jende gehiago mugitzen du kirol honek. Elgoibarren Orioren aldeko zaletuak aurkitu ditugu. San Rokeko balkoi batean egunak daramatza zintzilik Orioko bandera horiak. Castroko batela gogor hasi da eta Kortak bandera irabazi ostean erretiratzea nahi duela esan du. Elgoibartar hauen taldeak gogor egin beharko du arraunean.

## Abendu erdialderako amaituko dituzte Parrokia aurreko obrak



**S**an Bartolome jaiak bukatu bezain pronto hasi dira Parrokia aurreko obrak. Elgoibarko Udalak 165.278,66 euro erabiliko ditu obra honetan eta 14 asteko epean dena prest egotea espero dute. Migel Anjel Mujika Hirigintzako arduradunak azaldu digunez, "Gabonetan ekintza asko izaten dira elizan eta Plaza Handiko ingurune honetan, beraz, nola edo hala, ordurako obrak amaituta egongo dira".

### Aldaketa nabariak

Aste honetan ikusi dugun bezala, eliza aurreko lur guztia jaso dute. Lurreko harri borobilduak kendu egingo dituzte oso egoera kaskarrean daudelako eta arriskutsuak direlako. Jarleku berriak ipiniko dituzte eta egungo zuhaitzen lekuan gereziondoak jarriko dira. Bestalde, sarrera nagusia eta udaletxeko plazaren artean dagoen koska kendu egingo dute, dena maila berean jarritz.

## Jende dezente hurbildu da Gaztetxera San Bartolomeetan



Abuztuaren 22an inauguratu zuten Mupen enpresea zaharreko Gaztetxea. Malabare eta suarekin eginiko ikuskizun bat eta pare bat kontzertu izan ziren bertan. Esan digutenez, jende dezente izan

zen inaugurazio egunean eta baita San Bartolomeetan ere. Herriko gazteei bertara joateko eta ekintzetan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diete Gazte Asanbladatik.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Langabetuentzako galdaragintza ikastaroa IMHn

IMHk langabetuei zuzendutako galdaragintza ikastaroa antolatu du, %100ean diruz lagunduta. Ikastaroa irailaren 18tik azaroaren 30era arte izango da, astelehenetik ostiralera 15:00etatik 19:00etara. Guztira 204 ordu. Ikastaroa amaitu ondoren, ikasleek praktikak enpresetan egiteko aukera izango dute. Interesatuak 943744132 (Eli Pozo) telefonora jasoko dute informazio gehiago.

### San Antolin jaietako karretilaren zozketa

Joan zen asteburuan ospatu ziren San Antolin jaiak. Zapatu gabea egin zen karretilaren zozketa, eta zenbaki saritua 4.282 izan da (erre-serba: 1.003). Saridunak 943 74 17 99 edo 615 768 253 telefonora deitu dezake saria jasotzeko.

### Gurasoentzako euskara ikastaroak

Udaleko Euskara Batzordeak herriko euskaltegiekin eta ikastetxeekin elkarlanean, gurasoei zuzendutako euskara ikastaro bereziak antolatu ditu. Euskalduntzeko, hobeto eta errazago hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko ikastaroak izango dira. Izena emateko epea irailaren 22an bukatuko da. Interesatuak 943 74 27 31 (Udal Euskaltegia) edo 943 74 13 32 (AEK) jaso dezakete informazio gehiago.

### Eskuz Arte Tailerra

Eskuz Arte Tailerrak urriaren 3an emango dio hasiera aurtengo ikasturteari. Altzarien berrikuntza eta egurra margoitzeko ikastaroak eskainiko dituzte. Klaseak astearte eta ostegunetan izango dira, 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak 943 74 08 01 (Mertxe) telefonora deitu dezakete informazioa eskuratzeko.

Abuztuaren 22an inauguratu zuten Gaztetxe berria.

## Ba al daukazu Gaztetxera joateko asmorik?

**DANELE SARRIUGARTE**

Ikaslea

17 urte



“Bai. San Bartolomeetan joan gara Gaztetxera eta gustatu zaigu. Lekua ez da oso egokia, errepidea oso gertu dago, baina lokala oso ondo dago, nahiko handia da.”

**UNAI ZUBIAURRE**

Ikaslea

14 urte



“Bai. Aurreko Gaztetxea ez nuen ezagutu, baina berria egon naiz dagoeneko. Kontzertuak ikusteko eta lagunekin egoteko ondo dago, giro ona egoten da.”

**MARIA DE LOS OJOS**

Administraria

22 urte



“Oraindik ez dut Gaztetxera joateko aukerarik izan, baina aurrerantzean joango naiz. Lehen ere joaten nintzen eta gustatzen zitzaidan. Giro desberdina egoten da.”

**GORKA DE PRADO**

Peoia

28 urte



“Jaietan ez naiz egon, baina badaukat joateko asmoa. Lehen ere gustura joaten ginen. Herriarentzat beharrezkoa da Gaztetxea; tabernetako girotik bereizten den gun bat.”

## [ BAI ala EZ? ]

Datorren asterako...

Udako oporrak amaitu eta lanean hasteko unea iritsi da.

# Izan al duzu opor osteko depresiorik?

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Talasoterapia  
**Zelai**  
Z U M A I A

Hilabete honetan 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Zumaiako Zelai Talasoterapian**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

[www.talasozeelai.com](http://www.talasozeelai.com)

## JAIOTAKOAK



**Irene Rodriguez Herrera**  
[Uztailak 7]  
Andoni eta Sandra



**Eneko Etxaniz Irureta**  
[Uztailak 8]  
Asier eta Nagore



**Iria Rodriguez Blanco**  
[Uztailak 15]  
Marcia eta Maria



**June Fernandez Juaristi**  
[Uztailak 18]  
Emilio eta Lorea



**Haizea Alonso Cruz**  
[Uztailak 29]  
J. Luis eta Pili



**Urtzi Alonso Cruz**  
[Uztailak 29]  
Jose Luis eta Pili



**Elene Castillejo Alonso**  
[Abuztuak 15]  
Erroka eta Esther



**Lorea F.Campinun Echave**  
[Abuztuak 9]  
Rosendo eta Elvira



**Nahia Aldazabal Herrero**  
[Abuztuak 19]  
Jonatan eta Maite



**Jorge Alvarez de Arcaya Arrillaga**  
[Uztailak 29]  
Carlos eta Maria



**Ibon Fernandez Aranda**  
[Uztailak 11]  
Jose Abel eta Rosa Maria



**Izaro Ugalde Berasategi**  
[Uztailak 26]  
Enrike eta losune




**Jon Etxeberria Agirregomezkorta**  
[Abuztuak 20]  
Patxi eta Amaia




**Hodei Kerexeta Zabala**  
[Uztailak 15]  
Roberto eta Aranzazu



**Leidy-Katherine Suarez Arenas**  
[Uztailak 19]  
Cesar eta Sandra



**Jone Rodriguez Roman**  
[Uztailak 21]  
Jose eta Sonia



**Nahia Etxeberria Agirregomezkorta**  
[Abuztuak 20]  
Jose eta Sonia

## HILDAKOAK

Elvira Ordoño Rey • [60 urte] • Uztailak 9  
Juan Adrian Gorrotxategi • [60 urte] • Uztailak 11  
Juliana Zubizarreta • [96 urte] • Uztailak 21  
Modesta Etxeberria • [88 urte] • Uztailak 23  
Nati Zabaleta • [74 urte] • Uztailak 27  
Jose Zulaica Uranga • [78 urte] • Uztailak 29  
Jesus Ecenarro • [42 urte] • Uztailak 29  
Rafael Etxaniz • [76 urte] • Abuztuak 11  
Miguel Sanz Perez • [85 urte] • Abuztuak 12  
Maria Begoña San Martin • [74 urte] • Abuztuak 13  
Jose Domingo Palomino • [60 urte] • Abuztuak 26  
Melchor del Rivero • [84 urte] • Abuztuak 27  
Bitxori Mendiola • [79 urte] • Abuztuak 27  
Elisa Cid • [80 urte] • Abuztuak 29  
Miguel Ansola • [75 urte] • Abuztuak 30

## EZKONTZAK

Jose Julian Marquez eta Vanesa Nogales [Uztailak 22]  
Juan Albizu eta Ainhoa Tubia [Uztailak 22]  
Gorka Elia eta Sonia Leandro [Uztailak 22]  
J. Maria Astorquia eta Leire Arrizabalaga [Uztailak 30]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbide elektronikora.

# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

## TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.**

**Donostia eta  
probintziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01



# GUNE

## Askea





# 02

## Gazteen Eguna





Jabi Leon




Jabi Leon



Aitor

# 03

## Umeen eguna



Jabi Leon



Jabi Leon



Aitor



Jabi Leon





# SAN Antolin



## SAN BARTOLOME JAIEN BALORAZIOA

# Gauez baino egunez jende gehiago ibili da jaietan Kultura Saileko arduradunen iritziz

**S**an Bartolome jaiak datorren urtera arte agurtu ostean, balorazio eske jo dugu Udaleko Kultura Sailera. Orohar, "balorazioa oso ona" dela adierazi digute. Esanguratsuen: "Antolatutako ekintzetan, elgoibartar askok parte hartu du, batez ere egunez. Gaueko giroa, berriz, ez da izan uste bezalakoa. Zeresan eta esames ugari sortu ditu honek herrian, baina, ikusirik inguruko herrietan ere antzera ibili direla; agian, ohitura aldaketa bat, edo antzerako zerbaiten aurrean egon gaitezke".

Jaiak, egunez egun aztertuz gero, "ofizialagoak diren ekintzek (23an eta 24an), harrera ezin hobea izan zuten. Txiki Eguneko euria ez zen koadrilen partaidetza eta umore ona zapuzteko aitzakia izan". Bestalde, Baserritarren Egunak aipamen berezia merezi duela uste du Igor Palomino Kultura zinegotziak: "euria egin zuen arren, ekintza guztiak arrakastatsua izan ziren; antolaketa ere ona eta jendetza handia bildu zena bistakoa da. Gaztediaren egunerako hainbat lehiaketa anto-



latu ziren eta partaidetza ere handia izan zen. 17 goitibeherak parte hartu zuten eta ehunka lagun bildu ziren San Rokeko errepide bazterretan. Enbolatuekin antolatutako futbol partiduetara, berriz, 10 koadrilak eman zuten izena, aurreko urteetan baino

gehiago, alegia". Musikak ere leku garrantzitsua betetzen du jaietan: "Kontzertuei dagokionez, partaidetza handiena izan duten taldeak ondorengoak izan dira: Berri Txarrak eta UEK, Doctor Deseo eta PAM. Txarangak eta trikitalariek ere egin dute euren ahalegina. Eta zer esan Mautxita Txarangaz, 'norbere jaioterrian inor ez dela profeta' esakera behin eta berriz hankaz gora jartzen dute" azaldu digu Igor Palomino Kultura zinegotziak. Sokamuturra eta enbolatuak ere arrakastatsua izan dira, "ausartenak eta koldarrenak biltzen dira gure herrian aspalditik datozen ohitura hauetan. Izan dira zezenak harrapatutakoak ere, baina inor ez da larriki zauritu".

Amaitzeko, "elgoibartar guztioi zuen partaidetza eta herriko jaietan eskainitako laguntza eskertu nahi dizuet, horiek baitira jaien oinarri funtsezkoenak. Jaien antolakuntza lanetan parte hartu duten guztiak ere eskertu nahi nituzke, eta baita ezbeharririk gertatu gabe jaiak ondo joan daitezela lan egin duten guztiak".



## SANATANA DHARMA YOGA ELKAR-

### YOGAREN ONURAK

Birikak, odola eta zelulak desintoxikatzen ditu.  
Loezina, depresioa eta tristura sendatzen ditu.  
Bizkarrezurraren arazoak zuzentzen ditu.  
Estresa eta nerbio tentsioak ezabatzen ditu.  
Odolaren zirkulazioa hobetzen du.  
Nerbio sistema tonifikatzen du.  
Bizi energia haunditzen du.  
Lotsa, histeria eta neurosia garaitzen laguntzen du.  
Oroimena eta adimena garatzen ditu.  
Nortasuna sendotzen du.

### ELGOIBAR

Astelehen-Asteazkena  
Arratsaldean 19:00-20:30  
Astearte-Osteguna  
Goizez 10:00-11:30  
Arratsaldean 15:00-16:30  
18:00-19:30  
20:15-21:30  
Urasandi, 9 behea

### MENDARO

Astelehen-Asteazkena  
Goizez 10:00-11:30  
Arratsaldean 15:00-16:30  
Kultur Etxean  
Astearte-Osteguna  
20:00-21:30 Kz gunean

### INFORMAZIOA

943 74 85 93 / 685 72 21 31 (Idoia)

**Irailaren 12tik aurrera! Anima zaitez!**

MENDI IRTEERA

# Bachimalari itzulia emango dio Morkaikoren hurrengo irteerak



Irailaren 23an eta 24an izango da Morkaiko Mendizale Elkartearen hurrengo irteera. Oraingoan, Bachimala (Schrader gisa ere ezaguna) mendiari itzulia eman ahal izateko txangoa antolatu dute. Bachimala iparraldean dagoen Pont du Praten (1250 m) hasi eta bukatuko da ibilaldia, erlojuaren orratzen kontrako norabidean itzulia osatu ostean. Zapatuan, Port de La Pez


(2451 m) izeneko igarobidetik pasako dira eta Biados aterpetxean pasako dute gaua, eskumatara Lustoi eta Culfreda (edo Batoua) mendiak dituztela. Domekan, Port d'Aygues Tortes (2683 m) gainditu ostean, Pont du Prateraino jaitsiko dira zirkulua itxiztat emanez. Bazkideek 55 euro ordaindu beharko dituzte izena ematerakoan eta 10 euro gehiago bazkide ez direnek.

## Udal Kirol Patronatuak hasi du ikastaroen ikasturte berria

Irailarekin batera 15 ikastaro edo ekintza ezberdin jarri ditu abian Udal Kirol Patronatuak. Ohiko ikastaroetaz aparte (spinning, Pilates, aerobika, umeentzako igeriketa ikastaroak, e.a.), Body-Pump ikastaroa izango da berrikuntza nagusia. Giharreak tonifikatu eta garatzeko aproposa dela adierazi dute Kirol Patronatutik. Batuka ikastaroak azken hilabeteotan izan duen arrakasta ikusirik, ordutegia zabaltzea erabaki dute arduradunek. Bestalde, Sabel Dantza ikastaroa antolatu du Patronatuak Olaizaga kiroldegian. Irailaren 15etik azaroaren 24ra bitartean izango da, ostiraletan, 20:00etatik 22:00etara. Sebastopol taldeko Jaione izango da irakaslea eta parte hartzeko prezioa, 70 eurokoa. Jaioberrientzako igeriketa ikastaroari dagokionez, jadanik irekita dago izena emateko epea. Ikastaroari irailaren 23an emango zaie hasiera eta 10 saioko iraupena izango dute, abenduaren 2ra arte. Saioko larunbat goizetan Olaizaga kiroldegiko igerilekuan izango dira. Azkenik, umeentzako edo helduentzako gainerako igeriketa ikastaroak irailaren 11n hasiko dira.

### ESKERTZA

2006ko irailaren 1ean hil zen **Dominica Oria Alegria**ren sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA

2006ko abuztuaren 29an, 80 urte zituela hil zen **Elisa Cid Casan**ren sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



GIZONAK VS. ANIMALIA

## INDARRA GAINEZKA SAN ANTOLIN AUZOAN

*Ikusmin handia piztu zuen apostu edo dema jokatu zen San Antolin Egunez (irailak 2) San Antolin auzoan. Apostuaren orijinaltasunak eta auzotarren parte hartzeak erakarrita jende mordoak hurbildu zen autopistako zubi azpian prestatu zuten probalekura.*

*Norgehiagoka bitxiaren protagonistak: San Antolin auzoko bederatzi gizon batetik, eta Eibarko Urkiagaren behorra, bestetik. Egin beharreko lana: 830 kiloko harritzarra 20 metro luzeko plazan gora eta behera arrastaka erabili. Behorren lan erdiak eginez gero, gizonak nagusi. Zaldia atera zen lehenik eta 88 plazako marka ezari zuen. Gizonek, berriz, 52 plaza egin zituzten. Hortaz, gizonak nagusi, hogeit hamar minututan 1040 metroko distantzia eraman zuten 830 kiloko harria!*

Duela 3 urte, eta 30 urteko hutsun-aren ostean, San Antolin auzoko jaiak ospatzeko ohitura berreskuratu zutenean, jendea erakartzeko ekintza orijinalak prestatu behar zituztela erabaki zuten jai batzordeko kideek. Horrela sortu zen iazko auzotarren arteko taldekako herri kirol txapelketa. Herri kiroletako profesionalak ekarrita baino jende gehiago etorri zela ikusirik, eta merkeagoa ere atera zitzaie-la, aurtengo ere errepikatzea erabaki zuten.

Mausitxa baserriko Iñaki Ansola, auzoko alkateak, aurtengo demaren ideia

nondik atera zen azaldu digu: "Duela pare bat urte Aiako Elkano auzoan ikusi nuen estrainekoz proba hau. Zortzi gizonek idi baten aurka egin zuten. Gurera ekartzeko moduko proba iruditu zitzaigun". Pentsatu eta egin. Aiarrek harria arrastan eramateko tramankulu edo egitura ere bertatik ekarri zuten. "Jendeak jakinmin handia zuen 9 gizonek harriari nola tira egin behar genion jakiteko, hemen horrelakorik ez baita ikusi". Leku falta arazoak tarteko, dema behor baten aurka egitea erabaki zuten. Aurkaria Ei-

barko Unzeta baserriko Urkiagaren behorren topatu zuten.

Jokoan dirurik egon ez arren, serio demonio hartu zuten apostua bi aldeek. San antolindarrek, esaterako, azken bi hilabeteetan astero egin dituzte entrenamendu saioak. "Motel hasi ginen, 8 plaza besterik ez zitzaizkigun ateratzen eta etsita ibili ginen, bertan behera lagatzeko zorian. Ibiliaz eta saiatuaz, ordea, 48 plaza egitera iritsi ginen entrenamentuetan. Marka honek plazara ateratzeko segurtasun apur bat ematen zigun arren,





**Proba gizonak:**

Andres Astigaraga (Lizundia-Goikoa); Miguel Juaristi (Lizundia-Txabola); Joxe Juan Barrenetxea (Apraiz); Iñigo Alonso (Karkizano); Ekaitz Olaizola (Lizundia Txabola), Iñaki Ansola (Mausitxa); Josu Beristain (Irabaneta); Iñaki Eizagire (Aldai) eta Edu Arrona.

egunean bertan, eta zaldia lanean ikusi ostean, tripako min eta urduritasunak kanporatzen hasi ziren” aitortu digu Ansolak. Zaldiak 88 plaza egin zituenean apostuak kolorerik ez zuela uste zuten ikusle askok, zaldiak erraz irabaziko zuela, alegia. “Guk, dema gure eskura egon zitekeen errezeloa hartu genuen, entrenamenduetako lanari kaso eginez gero. Halere, bizkorregi, erreboluzionatuta, ate-

ra ginen, horrelako plazetan ibiltzera ohitugabe baiKaude. Kirolariak ere ez gara, Aldai izan ezik, eta igartzen da. Aldai berak egin zituen relojero lanak. Bazterrera ailegatu eta sei segunduko atsedendiak hartzen genituen harriari berriz kolpe egin aurretik. Azkenean sekula baino plaza gehiago atera zitzaizkigun; 52 plaza, eta estutuz gero, beste bat ere egingo genukeen”.

Amaieran poztasun itzela igarri zitekeen guztien aurpegietan, baina nekea ere ezin zuten ezkutatu, leher eginda amaitu baitzuten. Gustura geratu ez zena, zaldiaren jabea izan zen, “datorren urterako jokua egingo zigula bota zigun ,baina pisu handiagoko harria izatekotan. Jaiak berriz prestatzen hasten garenean ikusiko dugu zer erabakitzen dugun, baina berriz ere egingo dugula uste dut”.



## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- ▶ Pisia salgai Urasandin. Duplex-a. Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua, guztiz berriua. 100m<sup>2</sup>.  
**653 715141**

### ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.  
3 logela, sukaldea,  
komuna eta egongela.  
Dena kanpoaldera.  
Bizitzera sartzeko prest.  
**943 03 38 44**  
**686 62 21 92**

### ALOKAIRUA

- ▶ Bikote batek pisua hartuko luke alokairuan. **656 77 89 94 / 653 73 93 30**
- ▶ Etxea alokatzen da Aita Agirren. 3 logela, berriua.  
**685728555**
- ▶ Logela bateko etxebizitza alokatzen da erdialdean.  
**660 042 159**
- ▶ Logela bat alokatzen dut Elgoibarren. **943741881**
- ▶ Ikasleentzako pisua alokatzen dut Gasteizen, erdialdean.  
**689789743**
- ▶ Pisia alokatzen dut Torreveijan, hondartzatik 200 metrora. Uztaila, abuztua eta iraila.  
**615 707 138**
- ▶ Pisia hartuko nuke alokairuan.  
**645 499 105**
- ▶ Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.  
**626 91 49 04**

## [ AUTOAK ]

- ▶ Ford Escort Atlanta turbo diesel autoa salgai. 90 zaldi, egoera onean. Aukera bikaina.  
**660363815/943740786**
- ▶ Seat Ibiza 1.9 autoa salgai. 3 ate, zuria. 75 zaldi. 95ekoa. Merke.  
**943531597/679503380 (Aitor)**
- ▶ Hyundai coupe autoa salgai. Gorria. 10 urte. Egoera oso onean, befi garajejan. 850.000pta.  
**678 438 202**
- ▶ Opel Tigra autoa salgai. 1.4, 16v. Aire egokitua, beira igogailu elektrikoa, isteko sistema zentralizatua. 2.000 euro.  
**652 817 897**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- ▶ Garajea alokatzen da Trenbide kalean. **943 74 17 14**
- ▶ Garajea alokatzen da Pista Beltzaren azpian. **943748853**
- ▶ Garaje itxia alokatzen da San Roken, Telefonica aurrean. (Rosi)  
**943742931/660937529**
- ▶ Lokal bat hartuko guke Elgoibarren.  
**616224238/600009990**
- ▶ Garajea alokatu edo saltzen da Leku Ederren, 4. pisuan.  
**696 977 528 (Asteburuetan edo gabez deitu)**
- ▶ Garaje bikoitza salgai Urasandin, bi autorentzako. 30m<sup>2</sup>  
**653 715141**

## [ BESTELAKOAK ]

- ▶ Karabana salgai Bañares kanpingean, Santo Domingo de la Calzadan. (Errioxa). 5 lagunentzako. 4.500 euro. Negoziatzeko aukera. **943 74 41 27**
- ▶ Kiromasajerako kamilla tolesgarria erosiko nuke.  
**678 438 202 (Lurdes)**
- ▶ Look K6 131 bizikleta salgai. Karbonozko kuadroa, Colnago L-40 urkila, ITM eskulekua, Mavic Helium gurrupilak. 1.000 euro.  
**652 817 897**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea lanerako prest: nagusiak zainduz (geriatria erizaintzako titulua), umeak zainduz, garbiketa lanak, dendako kutxazain... **696 13 67 80**
- Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest.  
**639 88 20 04**
- Emakumea etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta informeak ditut.  
**620674034/943174134**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest: elkarreak, tabernak, lokalak... **667 709 439**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko.  
**699 609 190**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. **943 53 15 53**

- Emakumea edozein lan egiteko prest. **680304982 (Candelaria Fernandez)**
- Emakumea nagusiak edo gaixotak zaintzeko prest. Egunez edo gabez. Orduka ere. Esperientziaduna. **943172896 (Mertxe)**
- Emakume gaztea lanerako prest. **620 571707**
- Emakumea lanerako prest. **943 53 15 53**
- Neska gaztea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa... **609965932 (Blanca)**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Gabez edo egunez. Euskalduna, esperientziaduna. **943 74 44 33**
- 42 urteko emakumea lanerako prest: Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin... interna moduan. **676 190 781**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak

- egiteko prest. Oso arduratsua. **659813248/943033601**
- Gizonezkoa lanerako prest: Mekaniko, eraikuntza, edo beste edozein lan egiteko prest.  
**664 57 66 97**
- Emakuea lanerako prest: nagusiak edo umeak zindu, garbiketa lanak... **664 57 66 97**
- Pertsona bat eskaintzen da garbiketarako lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko.  
**626 91 49 04**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Interna. **610 91 33 40**
- Neska gaztea lanerako prest. Abuztuan nagusiak zaintzeko prest. **686 23 47 86**
- Emakumea pertsona nagusia edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin edo kamarera moduan lan egiteko prest. (Jakeline)  
**943 530803/676623843**

### ESKAINZA

- Neska euskalduna behar da tabernan barran lan egiteko. Esperientziaduna. **670654921**
- Kamareroa behar da. Gizarte Segurantzak. **615 72 34 80**
- Kamarera behar da.  
**943 25 43 66**

### ABISUAK

- Txapak irekitzeko aparatua galdu nuen San Bartolome jaietan. Balio sentimental handia dauka. 200 euro ordainduko dizkio aurkitu duenari. **669682990**
- Umearen urrezko pultsera galdu nuen irailaren 3an usua inguruan. Sare izena dauka idatzita.  
**615707138**
- Katu txiki bat oparitzen da. Mantsoa, lasaia eta maitagarria.  
**661225149**

## [ ZORIONAK ]



▶ Zorionak **Janire** uztailaren 22an 8 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Ibonxo** zure 4. urtebetetzean. Etxekoak.



▶ Zorionak **printzesa San Bartolome** Egunean 6 urte handi egin zenituelako. Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Janire** irailaren 4an 3 urte egin zenituelako. Etxekoen eta bereziki, Ion eta Maitaneren partez.



▶ Eskerrik asko **Iker** urte zoragarri honegatik. Zorionak! Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Sergio**, gaur 4 urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Maialen** abuztuaren 26an 2 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Asier eta Nekaneren partez.



▶ Zorionak **Gorane** abuztuaren 28an 11 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Iraitzen partez.



▶ Zorionak **Ane** irailaren 10ean 2 urte egingo dituzulako. Etxekoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Noral** Etxeko sorgin txikiak 5 urte bete ditu! Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Gorka** abuztuaren 26an 7 urte egin zenituelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Maddi** hilaren 13an 2 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Iñigo eta Maialenen partez.



▶ Zorionak **Rubentxu** uztailaren 27an urtebete egin zenuelako. Gurasoen partez muxu handi bat.




▶ Zorionak **Joseba** uda honetan 6 urte handi egin dituzulako. Aita, ama eta Leireren partez.



▶ Zorionak **Beñat** abuztuaren 15ean 5 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Unax-en partez.



▶ Zorionak **Txuturniol** Aibixta Jose, amama Rosi, osaba Juan Luis, izeba Garbiñe, Miren eta Amaia. Muxu asko!!!



▶ Zorionak **Aitor** atzo 12 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Maren, Ainhoa, Julen eta Zorioneren partez.



▶ Zorionak **Iñitza** zure 1. urtebetetzean. Etxekoen partez muxu handi bat.




▶ Zorionak **Ainhoa** irailaren 6an 9 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Nerea** uztailaren 29an urtebete egin zenuelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Mikel eta Marina** lau urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Saioa eta Iraitil** Muxu gozoak gurasoen partez.



▶ Zorionak **Edume eta Miguel**! Ondo pasa zuen egun handian. Lagunen partez.



▶ Zorionak **Josu eta Pabi** zuen urtebetetzean. Beranduxo, baina zorionak! Familiakoen partez.



## [ OKINDEGIA ]



10 domekia BOLINTXO



## [ FARMAZIAK ]

8	GUARDIA 24 ORDUZ
9	Fernandez
10	Bidasolo
11	Bidasolo
12	Zabaleta
13	Ettxeberria (Errosario)
14	Ibañez
15	Bidasolo
	Ettxeberria (Santa Ana)
	<i>* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.</i>

**KANPOKO FARMAZIAK**  
**IBAÑEZ**  
 Rekalde, 1 Soraluze.  
 Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
 Herriko enparantza 4, Garagarza.  
 Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
 Kalebarren, 9 Soraluze.  
 Tel: 943 75 13 84



## [ TELEFONOAK ]

<b>OSASUNA</b>	
Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

<b>UDALA</b>	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Haziena	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udalzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

<b>BESTELAKOAK</b>	
BARREN astekaria	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28



**ELGOIBAR - DONOSTIA (IRAILA)**  
**Astegunak:** 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 18:45, 20:00, 20:45  
**Larunbatak:** 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00  
**Igandeak eta jaiegunak:** 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45  
**Pesa:** 902 10 12 10

**DONOSTIA - ELGOIBAR (IRAILA)**  
**Astegunak:** 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.  
**Larunbatak:** 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45  
**Igandeak eta jaiegunak:** 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.  
**PESA:** 902 10 12 10

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**  
**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 22:15.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.  
**EUSKOTREN:** 902 543 210

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**  
**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.  
**Asteburu eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.  
**EUSKOTREN:** 902 543 210



### I. URTEURRENA

2005eko abuztuaren 28an hil zen  
*Andonegi ta Sustaeta tar Nikaxiren*  
 oroimenez urteurreneko meza izango da,  
 domekan, irailak 10, goizeko 12:00etan Parrokian.  
 Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



### ESKERTZA

2006ko abuztuaren 30ean, 75 urte zituela hil zen  
*Miguel Ansdia Arana "Txanblin"*ren sendiak,  
 bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## [ 15 BARIXAKUA ]

### 17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat eta hauen gurasoentzat (euria bada, hurrengo barixakura atzeratuko litzateke)

Plaza Handian



## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «Cars»

8, barixakua: 22:15  
9, zapatua: 19:30-22:15  
10, domekia: 16:30-19:30-22:15  
11, astelehena: 21:30  
«El Tigre y la nieve»  
15, barixakua: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

#### «La joven del agua»

8, barixakua: 19:30  
9, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
10, domekia: 17:00-19:30-22:15  
11, astelehena: 19:30-22:15  
12, martitzena: 19:30-22:15  
13, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

#### «Alatriste»

8, barixakua: 19:30  
9, zapatua: 17:00-19:30  
10, domekia: 17:00-19:30  
11, astelehena: 19:30-22:15  
12, martitzena: 19:30-22:15  
13, eguaztena: 19:30-22:15

## «Cars»



Zuzendaria: John Lasseter  
Marrazki bizidunak

Rayo McQueen lasterketa auto hasiberri, ausart eta berekoia da protagonista. Kalifornian jokatzekoa den auto lasterketa prestijiosura bidean galdu eta Radiador Springs herrixka galduan azalduko da. Bizilagun bitxiak ditu herriak: Sally (Porsche deigarria), Doc Hudson (1951ko Hudson Hometa) eta Mater, herdoildutako garabi auto leiala. Guztien laguntzaz, sariak eta ospea baino gauza garrantzitsuagoak daudela ulertuko du Rayo Mcqueenek.

# Atzera hegira



**1971** . urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. "Umore ona" izeneko koadrila agertzen da argazkian. Gipuzkoako bira egin zuten egun honetan, eta autobusa hartu aurretik, bolatokian atera zuten erretratua. Koadrila honek egiten zuen bigarren txangoa izan zen hau. Hondaribin bazkaldu eta Zarautzen afaldu zuten. Handik aurrera, urtero egin izan dute irteeraren bat. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak.

Goian, ezkerretik eskumara: **Felix Bergua, Jose Luis Lasa, Jose Maria Loiola ( ), Ramon Zabala, Jose Luis Elizburu, Ramon San Martin ( ), Jesus Bilbao, Jesus Mari Lizarralde.**

Bigarren ilaran: **Felix Juaristi, Imanol Solozabal ( ), Pedro Osoro, Jose Inazio Murua ( ), Jose Maria Otaegi ( ), Jose Mari Gurutxaga, Alfredo Santos, Juan Mari Barandiaran, Armando Lasuen.**

Hirugarren ilaran: **Jose Luis Ramos, Rafael Beitia, Jose Mari Muruamendiaraz, Jesus Mari Iglesias, Alejandro Gonzalez ( ), Ceferino Gonzalez, Alberto Ortueta, Luciano Guerra "Chano" ( ), Luis Kortabitarte ( ).**

Behoko ilaran: **Xabier Gorostiza, Iñaki Jauregi, Julen Sanz, Jesus Mari Ortueta ( ), Alberto Solas, Jose Antonio Iriondo, Enrike Zubiaurre ( ), Felix Retolaza eta Jose Luis Laskurain.**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean

**EUSKARA ERREFORTZUETARAKO LAGUNTZAILEAK behar dira:**

- Hurrekin lan egiteko. Urritik ekainera.
- Astean 2-4 ordu (arratsaldez).

**Bete beharreko ezaugarriak:**

- 18 urte edo gehiago izatea, eta elgoibartarra edo ingurukoa izatea.

**Curriculumak eta informazioa:** 943 74 16 26 (Nerea) • E-posta: [nerea.larra@elgoibarkoizarra.com](mailto:nerea.larra@elgoibarkoizarra.com)

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea • Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

**%10eko**



**deskontua  
haur arropetan**

**txartel hau  
aurkeztean**

**Etoz eta ikus!**



**Emakume, gizon eta haur erropak**

**Irailak 8tik 22ra**

## UDAL EUSKALTEGIAK

Euskara ikasteko biderik gertukoena, erosoa eta errazena  
*La manera más fácil, cómoda y cercana de aprender euskera*

**etxean bezala  
como en casa**

**20 urte  
17 urteko  
Euskara ikasteko  
Erosoa, erraz eta  
fácil, cómodo  
y cercano.**



Oraineko Udalak (Nafarroa, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Leizorako Udala)  
Juan Sakalburu (Nafarroa), Mikel Galarza (Araba), Mikel Galarza (Bizkaia), Mikel Galarza (Gipuzkoa), Mikel Galarza (Leizorako Udala)

## 2006/2007 EUSKARA IKASTAROAK

Euskaldunize maila guztiak. Alfabetatzea. EGA. Hizkuntz Eskakizunak.

**IRUJIPENA**  
Iraila eta Ekaina

**IKASTARO BEREZIAK**  
Ikastaroak: 1. iruzketa eta ikastaro berritasunak. Minutaspekitako  
Hizkuntza Eskakizunak (Dokidokua, Administrazioa, Herriak) eta  
NSA (Jeturkuntzako Ikastaroak), Ostalaritza.

**AUTOIKASKUNTZA**  
BODA (0n linea)

IRUJIPEN 1. eta 2. mailako aterkeriak eskualtegiak bertan.

16 urteko gorakoentzat.  
Guru-laguntzak. Galdetuz.

**MATRIKULALDIA**  
Irailaren 1etik 22ra



**UDAL  
EUSKALTEGIAK**

**DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea**  
Nafarroa Enparantza 2 - ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 27 31  
elgol.euskal@udal.gipuzkoa.net  
Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-19:30

**matrikula  
zabalik**

[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

**matricula  
abierta**



Udalaren izenean, eskerrak elgoibartar guztioi, denon artean lortu baitugu San Bartolome jaiak giro eta umore ezin hobean pasatzea.

